



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 12a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00108. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako osasun-zentro guztiak arian-arian klimatizatze kronograma zehatza ezar dezan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00109. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza-curriculumean sar ditzan alfabetizazio mediatikoa eta informazioaren egiaztapena. Kevin Lucero Domingues jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00110. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan xede sozialeko kontratuen erreserba handitu dezan. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00315. Galdera, Ultzaman bidaidetik gabeko adingabe migratzaileen zentro bat irekitzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00316. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berraktibatze eta eguneratzeko tresna informatikoari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00317. Galdera, biometanizazio-planten proiektuei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00318. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epea luzatzea (12. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epea luzatzea (12. or.).
- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea (13. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00108. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako osasun-zentro guztiak arian-arian klimatiza-tzeko kronograma zehatza ezar dezan

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako osasun-zentro guztiak arian-arian klimatizatzeke kronograma zehatza ezar dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioak:

Uda honetan, ugaritu egin dira Nafarroako Foru Komunitateko osasun-zentro eta ospitale publikoetan jasandako tenperatura altuak direla-eta osasun-erloto profesionalek, pazienteek eta senitartekoez aurkeztutako kexak. Jasan behar izan dituzten bero-baldintzek erabiltzaileen ongizateari eragin diote, arriskuan jarri dute pertsona kalteberen segurtasuna eta okertu egin dute gure foru-erkidegoko osasun-zentro publikoetan ematen den arretaren kalitatea.

Egoera hori munta handiko auzia bihurtu da gizartean; izan ere, abuztuaren 28an, Nafarroako Parlamentuak sinadura-bilketa bat jaso zuen, zeinaren bidez berariaz eskatzen baitzen Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko klimatizazioa hobetzea, bero-boladek gogor jo baitute erkidegoan, zentroko zenbait esparrutan beroa jasanezina izateraino.

Egoeraren larritasuna Osasun Departamentuaren aurreikuspen faltaren ondorioa da. Izan ere, muturreko baldintza klimatikoak urtez urte udako hilabeteetan errepikatzen direla jakin arren, ez da benetako alternatibarik aurreikusi aurreko udetako behin-behineko irtenbideez harago, hala nola gela bikoitzak gela indibidual bihurtzea paziente zaurgarrienak dituzten solairuetan (neurri hori ezarri baitzen aurreko urteetan). Gainera, ez da planifikatu klimatizazio-tresna eramangarrien behar besteko hornidurarik, eta horrek agerian uzten du planifikazio-falta kezagarria dela.

Arriskuaren tamainaren arabera neurri eraginkorrak hartu beharrez, Osasun Departamentuak neurri nabarmen eskasak baino ez ditu hartu (informazio-eskuorriak banatu, leihoak ireki edo haizagailuak erabili, adibidez), pazienteek eta profesionalek egiaz jasaten duten inpaktuari aurre egin gabe.

Ekintza horiek desegokiak dira inondik ere osasun-zentroetako tenperatura 30° C-tik gorakoa baldin bada; izan ere, pazienteen duintasunaren eta erosotasunaren aurkakoak izateaz gain, indarrean dauden betebeharrak legal eta teknikoan ageriko ez betetzea dira, bai eta sentsibilitate eta erantzukizun instituzionalik ezaren erakusgarri ere.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak klimatizazio-kronograma integral progresibo bat ezartzea osasun-zentro guztietan, gune kritikoaren klimatizazioa ziurtatzeko 2026ko uda baino lehen, eta barne hartuta, gutxienez, Bideko

Ama Birjina Ospitalea zeneko E pabiloia eta seigarren solairu orokorra eta paziente bereziki kalteberak dituzten beste unitate batzuk.

Halaber, garaiz klimatizatu ezin diren guneeetarako babes-neurriak ezarri behar dira, konfort termikoko gutxieneko baldintzak bermatuko dituen protokolo bat onartuz, logela bakoitzeko okupazioa mugatuz, klimatizazio-sistema eramangarriak edukiz, paziente kalteberenei lehentasuna emanaz eta zorrotz gainbegiratzuz neurriak betetzen direla. Jarduketa horiek uztartuz gero, pazienteen eta profesionalen osasuna babestu, asistentziaren kalitatea bermatu eta indarrean dagoen araudia bete ahal izanen da, erantzukizun- eta plangintza-esparru bat ezarriz epe ertainera, segurtasuna bermatuko duena oraingo eta etorkizuneko bero-boladetarako.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1) Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatzeko du paziente, senitarteko eta profesional sanitarioek bizitako egoera, muturreko tenperaturak jasan behar izan baitituzte uda honetan gure foru-komunitateko sare publikoko osasun-zentro eta ospitaleetan.

2) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kronograma zehatz bat ezar dezan Nafarroako osasun-zentro guztien klimatizazio progresiborako, faseak, epeak eta lehentasunak ezarriko dituen pazienteen kalteberatasunaren, asistentzia-zamaren eta instalazioen egungo baldintzen arabera, denbora-horizonte errealista batean amaitzeko aurreikuspenarekin.

3) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, Nafarroako osasun-zentroetako gunek klimatizazio-sistema egokiak eta iraunkorrak izan ditzaten 2026ko uda baino lehen, lehentasuna emanaz patologia, adin edo egoera klinikoagatik bereziki kalteberak diren pazienteei arreta ematen dieten unitateei. Konpromiso horrek, gutxienez, Bideko Ama Birjina Ospitalea zeneko E pabiloia eta 6. solairu orokorraren klimatizazioa jaso beharko du, neurri horien artean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osoan gisa bereko ezaugarriak dituzten beste unitate batzuk ere sartzen ahalko badira ere.

4) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du partida berezi bat gaitu dezan berehala, 2025eko ekitaldian klimatizazioko premiazko jarduketa horiek finantzatzeko, bai eta Nafarroako 2026rako aurrekontuen lege-proiektuan partida berriazko bat sar dezan ere, foru-komunitateko osasun-zentroetako gunek kritikoen klimatizazio-plana burutzea bermatzeko.

5) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du muturreko bero-garaietan klimatizatu gabeko guneeetan jarduteko protokolo bat taxutu eta onetsi dezan, gutxieneko betekizun hauek jasoko dituen gutxienez ere: a) gela bakoitzeko paziente kopurua mugatzea, azaleraren eta aireztapen-baldintzen arabera; b) klimatizazio- eta aireztapen-sistema eramangarri egokiak edukitzeko betebeharra ezartzea, oinarritzeko konfort termikoa bermatze aldera; c) paziente zaharrentzako, pluripatologikoentzako edo bereziki kalteberentzako neurri espezifikoak ezartzea, lehentasuna emanaz gunek klimatizatueta paratzeari; d) zentroko zuzendaritzek aldizkako gainbegiratzeko egitea.

Iruñean, 2025eko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/MOC-00109. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza-curriculumean sar ditzan alfabetizazio mediatikoa eta informazioaren egiaztapena

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza-curriculumean sar ditzan alfabetizazio mediatikoa eta informazioaren egiaztapena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Hezkuntza Departamentua premiatzen da hezkuntza-curriculumean sar ditzan alfabetatze mediatikoa eta informazioaren egiaztapena. Hezkuntza Batzordeak eginen du mozio honen jarraipena.

Zioen azalpena

Demokrazia baten indarra neurtzeko balio duen aldagaia da, orobat, herritarrek gertaerak eta iritziak bereizteko, iturriak egiaztatze eta autonomiaz pentsatzeko duten gaitasunarena. Desinformazioak, polarizazioak eta algoritmo-alborapenek markatutako informazio-ekosistema batean, hezkuntza-sistema ezin da neutraltasun teknologikoan geratu: teknologia irizpidez erabiltzen irakatsi behar du, bai eta edukiak kontrastatzen eta horiek eztabaida informatuaren mende jartzen ere.

Nafarroak oinarri sendoak ditu konpromiso hori politika publiko egonkor bihurtzeko. Alde batetik, Hezkuntza Departamentuak eta Nafarroako Uniber-

tsitateak hitzarmen bat sinatu dute Lehen eta Bigarren Hezkuntzan alfabetatze mediatikoa sustatzeko. Hitzarmen horrek irakasleen eginkizuna indartzen du, eta ikastetxeen autonomia aitortzen du arrakastaren giltzarri gisa. Bestalde, bultzada hori ikasNOVAren arkitekturaren txertatzen da, zeina gure hezkuntza-sisteman gaitasun digitala egitura-tzen duen estrategia baita.

Horrez gainera, lan partekatuaren ekosistema bat ere badago (jardunaldiak, gidak eta baliabideak), dagoeneko sendotzen ari dena: Hezkuntzako Konpetentzia Digitalari buruzko I. Jardunaldiak eta trukerako espazio publikoek ziberbizikidetzan, pentsamendu kritikoan eta irakurketa sakonean jarri dute arreta, eta, horrela, iparrorratz argia eskaini diete zuzendaritza-taldee eta klustroei. LOMLOErekiko koherentziaz (horren arabera, konpetentzia digitala da ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzean izan beharreko konpetentzia giltzarrietako bat), alfabetatze mediatikoak zeharkako lekua izan behar du curriculumean eta irakasleen etengabeko prestakuntzan, eta hedabideekin, unibertsitateekin eta hirugarren sektorearekin lankidetzan hedatu behar da, landa-eremua eta familien parte-hartzea barne hartuta.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako mozio hau aurkezten du:

Erabaki-proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du curriculumean eta irakasleen etengabeko prestakuntzan zeharka integratzen alfabetatze mediatikoa eta informazioaren egiaztapena, pentsamendu kritikoa, irakurketa sakona eta teknologien erabilera segurua indartuz, inplikaturako eragile guztiekin lankidetzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du hezkuntza-sistemaren eskura jar dezan baliabideen eta gida didaktikoen gordailu ireki bat (ikasgelako unitateak, ebaluazio-errubrikak, egiaztapen-bitartekoak eta hedabideen irakurketa kritikoa), ikasNOVArekin eta konpetentzia digitalaren Europako eta estatuko esparruekin koherenteak izanen direnak.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du komunikabideekiko, unibertsitateekiko eta hirugarren sektorearekiko aliantzak susta ditzan, herritarrak komunikabideen alorrean sentsibilizatzeko eta hezteko jardueretarako, baita landa-ingurunean ere, familien parte-har-

tzea eta balio demokratikoen esparruko hezkidetzak bultzatuz.

Iruñean, 2025eko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/MOC-00110. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan xede sozialeko kontratuen erreserba handitu dezan

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan xede sozialeko kontratuen erreserba handitu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Helburu sozialekiko kontratuen erreserba, kontratazio publikoko araudietan aurreikusia, desgaitasuna duten eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen laneratzea eta gizarteratzea sustatzeko helburua duen tresna bat da; Nafarroan, orain dela hamarkada bat baino gehiago jaso zen legedian.

Halatan, gure kontratazio-araudiaren arabera, Nafarroako administrazio publikoek, eta horien artean Nafarroako Gobernuak eta bere sozietate eta fundazio publikoek, zerbitzu-, obra- eta hornidura-kontratuen eta zerbitzuak emateko kontratuen adjudikaziorako prozeduretan parte hartzeko aukera erreserbatu beharko diete irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezietan edo ekimen sozialeko enplegu-zentro berezietan, laneratze-enpresei edo irabazi-asmorik gabeko entitateei, aurrez laneratze-eta gizarteratze-zentro gisa kalifikatuak izan diren laneratze-enpresen sustatzaile direnei % 100ean. Eta erreserbatzen diren kontratuen zenbatekoak, gutxienez, aurreko aurrekontu-ekitaldian adjudikatutako kontratuen zenbatekoaren % 6koa izan beharko du.

Portzentaje hori ez da urte bakar batean ere bete, eta, gainera, geldirik dago, nabarmen atzeraka egiten ari ez bada.

Hori dela-eta, enplegu-zentro bereziak eta laneratze-enpresak denoi ohartarazten ari zaizkigu beharrezkoa dela % 6ko helburua betetzeko aitzina egitea. Azkenekoz, Ilunion-ONCEn garbitegira egindako bisita parlamentarioan, non zentro horiek hazteko dauzkaten aukerez eta, hortaz, desgaitasuna duten eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako lanpostu gehiago sortzeko aukerez hitz egin zen, eta aztertu zen nola dagoen hori lotuta arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratazioaren bolumena handitzearekin.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zentroetako arropak alokatu, garbitu, lisatu eta errepasatzeko zerbitzuaren

kontratua lizitatzen denean Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera (arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuak) esleia dadin 1. lotea: Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa (NOU-A eta NOU-B) eta Tuterako Osasun Barrutia edo gisakoa kontratazio-bolumenaren ondorioetarako, erreserba horretatik kanpo utzita 2. lotea: Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa (NOU-C eta NOU-D), Lizarrako Osasun Barrutia, Iparraldeko eta Ekialdeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroak, Osasun Mentaleko zentroak eta Nafarroako Odol eta Ehun Bankua edo gisakoa kontratazio-bolumenaren ondorioetarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legegintzaldi honetan arlo horretan lizitatuko diren kontratu guztiak % 6ra hurbiltzeko, halako moduan non areagotu egingen baita erreserbatutako kontratazioaren bolumena, kopuru horretara heltzeko aukera errealei buruzko azterlan bat eginda. Azterlan hori 3 hilabeteko epean egin beharko da, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordea izendatzea mozioaren jarraipena egiteko arduradun.

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00315. Galdera, Ultzaman bidaidetik gabeko adingabe migratzaileen zentro bat irekitzeari buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Ultzaman bidaidetik gabeko adingabe migratzaileen zentro bat irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, hark idatziz erantzun diezaion:

Espainiako Gobernuak zer datatan jakinarazion Nafarroakoari asiloa eskatzen duten bidaidetik gabeko adingabe migratzaileen zentro bat irekiko zuela Ultzaman?

Nola jakinarazi zion? Jakinarazpen horren gaineko dokumentazioa eskatzen dut.

Zenbat adingabe iritsi dira zentro horretara galdera honi erantzuten zaion egunera arte?

Jakinarazi al da kolektibo horretako adingabe gehiago iritsiko denik? Hala baldin bada, noiz, zenbat eta nora iritsiko dira?

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00316. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berraktibatze eta eguneratzeko tresna informatikoari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berraktibatze eta eguneratzeko tresna informatikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazte-

riako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuko hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak behin baino gehiagotan adierazi du berak zuzentzen duen departamentuak berriz aktibatuko duela Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa, eta erregistro hori automatikoki eguneratuko dela, hutsik dauden etxebizitzak zehatz-mehatz detektatzea ahalbidetuko duen tresna informatiko bat erabiltzea.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

Zertan da Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berriz aktibatze eta erregistro hori automatikoki eguneratzeko tresna informatikoaren garapena?

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak zer epe darabil gogoan tresna hori abian jartzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00317. Galdera, biometanizazio-planten proiektuei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, biometanizazio-planten proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzuteko honako galdera hau aurkeztu du:

Azken asteotan ikusi dugu herritarrek hainbat mobilizazio egin dituztela Nafarroako beste horrenbeste herritan, biometanizazio-planten proiektu batzuk auzitan jartzeko.

Mobilizazio horietaz gain, jakin badakigu milaka alegazio aurkeztu direla proiektu horietako batzuk direla-eta.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari

1. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 56. artikuluan 2. puntuan xedatzen denez, garatuta egon beharko litzateke honako hauek arautzen dituen erregelamendua: lurzoru-ongarritzea, abereen gorozkiak eta lurzoruari ematen zaizkion gainerako materialak kudeatzeko baldintzak, kudeaketa hori optimizatzeko eta izan ditzakeen ondorio kaltegarriak minimizatze aldera, neurriak garatuz bereziki babesteko ur-ibilguak eta hezeguneak, eta neurri bereziak hartuz nitratoen pilaketak kutsatutako alubioi-lurrak leheneratzeko. Garatu al da erregelamendu hori?

2. Zer neurri hartu dira nekazaritzan mindetatik eta beste ongarri organiko batzuetatik eratorritako metano gasaren eta berotegi-efektuko beste gas batzuen emisioak murrizteko, ekonomia zirkularra sustatuz, EKKLren 53. artikuluan ezartzen den bezala, kontuan hartuta ekonomia zirkularrari beneratan erantzuten dioten neurriak izan behar luketela, eta ez lurrak eta urak kutsatuko dituztenak?

3. Ba al dago Nafarroako lurren eta uren kutsaduraren egungo egoeraren maparik?

4. Zer pisu emanen zaie sortzen dituzten arazo guztiak direla-eta beren lurraldean horrelako instalazioen aurka dauden landa-eremuko biztanleen mobilizazioei?

Iruñean, 2025eko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/PES-00318. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuaren 2011ko apirilaren 4ko Erabakiaren bidez, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integrala onetsi zen.

Nafarroako Gobernuaren 2014ko apirilaren 16ko erabaki bidez, berriz, plan hori berrikustea onetsi zen, eskualde mailako zerbitzuen lurralde-integrazioari erreparatuta berrikustea zehazki.

Planaren berrikuspen horren ondorioz, emakiden mapa berria zehaztu zen, halako moduan non Nafarroan lehen zeuden hiriarteko garraio 38 emakidak 9 izatera pasatu baitira.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1.- Zertan da errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakiden berritzea?

2.- 2014az geroztik, noiz berritu ziren berrituta-ko emakidak eta noiz amaitzen da emakida horietako bakoitzaren indarraldia? Emakida horiek luzatzea aurreikusten baldin bada, zer epe aurrei-

kusten dira emakida horietako bakoitzaren luzapenerako?

3.- Departamentuak zer epe darabil gogoan berritzeko dauden emakidak formalizatzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko urriaren 2ko 15:00etara arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko urriaren 2ko 15:00etara arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an eginiko bilkuran, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea, zeinaren 9.3 a) artikuluan xedatzen baita Kontseilu horretako bost kide Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela gehiengo osoz.

Eledunen Batzarrarekin bat, eta Erregelamenduko 42.1.bederatzigarren artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzeko arauak onestea. Hona arauen testua:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako kide bat hautatuko du Nafarroako Parlamentuko ordezkari gisa, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Talde parlamentario bakoitzak hautagai bakarra aurkezten ahalko du, aipatu foru legean ezarritako baldintzak bete beharko dituztenak.

3. Hautagaitzak aurkezteko, Parlamentuko Mahaiari zuzendutako idazkiak aurkeztu beharko dituzte talde parlamentarioek, eta proposatutako hautagaien adostasuna ere jaso beharko da idazkiotan. Aztertze aldera ea proposatutako hautagaiak foru lege horren 14. artikuluan ezartzen den bateraezintasun-egoeraren batean dauden, beharrezkoa izanzen da proposamen-idazkiekin batera aurkeztea hautagaien frogara edo adierazpena, bateraezintasun-egoera horietan ez egoteari buruzkoa.

4. Talde parlamentarioek Gizarte Kontseiluaren kide izateko hautagaitzak aurkezteko epea **2025eko irailaren 18ko 15:00etan bukatuko da.**

5. Epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen dituzten eskatzen diren baldintzak; eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide baten hautapena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eginen da, bozketa isilpekoaren bidez.

7. Txartelen bidez eginen da bozketa.

8. Mahaiak botoak zenbatu eta boto gehien lortu dituen hautagaitza aldarrikatuko du. Hautagaitzak Legebiltzarreko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa lortu behar du gutxienez.

9. Proposamenean eragina izaten ahal duten balizko berdinketak ebazteko, boto-kopuru bera lortu duten hautagaitzetarako beste bozketa bat eginen da. Berdinketak bere horretan baldin badira, boto kopuru bera lortu duten hautagaitzetarako bozketak eginen dira bata bestearen jarraian, harik eta berdinketa hautsi arte.

10. Lehenbiziko bozketan postua betetzen ez bada 8. arauan zehaztutako baldintzak ez bete-tzeagatik, bozketak errepikatuko dira. Lehendakari-tzak bozketak eteten ahalko ditu, bidezko epezetan ere, uneko inguruabarrak direla-eta hala jokatzea komeni bada. Segidan hiru botazio suertatzen badira hautagaia hautatu gabe, bukatutzat emanen da hautatze-prozesua, eta prozesu berri bati emanen zaio hasiera.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

